

Orotariko ipuinak

Peru Iparragirre

zenburua ez nuen berehalakoan harrapatu; ordurako garuna udako eguzkiak egosi zidalako, ziurrenik. *Mecanografiak* da Harkaitz Canoren (Lasarte-Oria, Gipuzkoa, 1975) azken liburua, aste gutxiz gehiago izango bada ere. *EITB Kultura Transit* telebista-saioan esan zuen Canok berak ia-ia lanik egin gabe ateratako liburua dela. Izan ere, azken hogeita hiru urteotan argitaratutako narrazioak biltzen dituen antologia da *Mecanografiak*. Irati Jimenezek (Mundaka, 1977) egin du hautaketa, eta harena da hitzaurrea ere.

Atzera begirako liburu hau Canok ipuingintzan egin duen ibilbidea berrikusteko parada ederra izan daiteke, are, hortik zehar barreiatuta eta bistaz galdutako ipuinak aurkitzeko aukera ere bada. Gutizien dastaketa-menua da *Mecanografiak*, nolabait. Jimenezek ez ditu kronologikoki edo kanon baten barruko testuak

hautatu; haren hitzetan, bilduma «ez-akademikoa» da, baina koherentzia mantentzen saiatuta egindako antologia dela ere badi, eta koherentzia zerk ematen dion asmatzen jakin ez dudan arren lortu duela esango nuke. Canok literaturarekiko erakusten duen maitasun bera erakutsi duela Jimenezek ere; hori irudituz zait. Canoren orotariko ipuingintzaren erakusgarri da antologia, eta denetarik eskaintzen dio irakurleari. Argitaratu dituen ipuin-



'Mecanografiak'

Idazlea: Harkaitz Cano. **Argitaratzailea:** Txalaparta.


liburu guztietako aleak daude jasota, eta baita, esan bezala, aparteko argitalpen batzuetan argitaratutakoak ere: 27 ipuin guztira.

Halaberrez da orotarikoa Canoren ipuingintza, urteen joanaren, ipuin-liburu desberdinen, askotariko formatu eta eskakizunen beharren ondorioz eta nor-nahiko imaginazio ia mugagabe-ri eskerrak. Eta ez imaginazioa istorioak asmatzeko bakarrik, eta istorioak kontatzeko ere, hori baita koska. Ez naiz Canori buruz esan ez den ezer berririk esaten ari, dena dela.

Laudorio hutsa baino gehiago da antologia zabaltzen duen hitzaurrea, laudorioa ere badenez, Canoren bibliografiaren baino literatur ekoizpen eskergaz eta horren esanahiaz ere mintzo da Jimenez. Hala eta guztiz ere, ipuingintza da gehien landu duen generoa, kopuruari dagokionez, behintzat. Badaude ipuingintza horri buruz Jimenezek idatzitako bi esaldi, iruzkin honetara ekarri nahiko nituzkeenak, antologia honi buruz hitz egitean ituan ematen duelakoan. Honela dio: «Zeuri ere gertatuko zaizu, behin baino gehiagotan, ipuin hauek

irakurtzerakoan literatura bila joan eta bizitza besarkatzen duzula sentitzea, edo alderantziz». Eta zer esan, niri behintzat gertatu zait, literatura bila joan naiz gehienetan eta bizitza topatu dudala esango nuke, eta literatura gehiago topatu dudala bizitza horretan, gero.


Badaude bilduman besteak baino iltzatuago geratu zaizkidan ipuinak, biribilagoak direlako edo horiek zirelako behar nituenak, auskalo. Hauxe Jimenezen bigarren esaldia: «Biek aurkitzen dituzte narrazio interesgarrienak fantasiaren eta errealitatearen arteko puntu telurikoetan». Hemen Cortazarren eta Canoren arteko lotura egiten du Jimenezek, ez alferrik. Cortazarren heriotzarekin eta Parisen hasten da antologia, eta Cortazarren hilobia ere ageri da antologia ixten duen ipuinean, Parisko Père Lachaise hilerrian. Gehiagotan ere ageri da Cortazar, eta ageri ez denean ere hor dagoela esango nuke. Fantasia eta errealitatea, fikzioa eta errealitatea elkartzen dira Canoren unibertsoko orotariko ipuinotan: literatura eta bizitza.



'Egan. Aurkibideak 1948-1992 / 1993-2017'

Egilea: Askoren artean. **Argitaratzailea:** Euskalerriaren Adiskideen Elkarte.

Egan literatura aldizkariaren ibilbidearen isla da argitalpena. 1992-2017 urte arteko epeaz Gilermo Etxeberriak idatzitako testuarekin hasi, eta aldizkariaren garai berriaz Koro Segurolak idatzitakoarekin jarraitzen du liburua. Osteen datoz aurkibideak, egileen eta gaien arabera.



'Cosimoren katiuskak'

Idazlea: Dani Martirena. **Ilustratzailea:** Ana Ibañez. **Argitaletxea:** Pamiela.

Etxepare saria irabazi berri du Martirenak eta Ibañezek ondutako album ilustratuak. Cosimo da bertan kontatzen den istorioaren protagonista; zuhaitz batean egindako etxola batean bizi da, eta bertatik begiratzen dio munduari. Italo Calvinoren *Il barone rampante* hartu dute oinarri egileek, gaurkotzeko.



'Martzelo itsua'

Idazlea: Pello Añorga. **Ilustratzailea:** Maite Mutuberria. **Argitaletxea:** Elkar.

Haur itsu bat da Martzelo, eta gaixoa dela uste dute haur batzuek. Baina ez da hala, nahiz eta itsua izan oso ondo baliatzen baita gainerako zentzumenekin. Hain ondo entzuten, ukitzen eta usaintzen du, ezen badirudien ikusi egiten duela belarriekin, eskuekin eta sudurrekin.

Ezinbesteko galderak



Imanol Mercero

Hona moda-modako izenburua. Giza jarduna ingurunea eraldatzen ari dela ohartu gara, eta klima ez ezik, biosfera osoa ere eraldatzen ari omen gara. Esaerako erleak. Adituek ez omen dakite zein den erleen gutxitzearen arrazoi zehatza. Bat datoz, ordea, gertatzen ari dena deskribatzean: gero eta erle gutxiago dago, eta audenak gero eta ahulago daude.

Liburu honek erleen berezitasunez hitz egiten digu, tonu apokaliptikorik gabe. Edozein adinetako haurrekin irakurri eta lantzeko moduko jakintza-liburua da, informazioa hegal tolesgarrien atzean ezkutatutako jolasaren bidez ematen duena. Horrek kutsu infantila eransten dio, egia, baina tartean azalpen asko dago

haur kozkorrentzako modukoak direnak: Zer dira erleak? Zergatik behar ditugu erleak? Non bizi dira erleak? Nola egiten dute erleek eztiá?...

Azkenik, aipatu, obra hau Lehen galderak eta erantzumak bildumaren parte dela, beste hiru titulu hauekin batera: *Nola hazten dira loreak?* (2015), *Nola sortzen da euria?* (2016), eta *Nondik datoz umeak?* (2017)

Ea bildumak segidarik duen, halako asko behar ditugu eta.



'Zergatik behar ditugu erleak?'

Idazlea: Katie Daynes. **Ilustratzailea:** Christine Pym. **Itzultzailea:** Amets Santxex Munain. **Argitaletxea:** Txarttalo.

Bietatik pixka bat



Imanol Mercero

Zerk erakartzen duen haurra liburuetara ez daki inork. Arrakasta ez da inoiz ziurra izaten. Garaian garaiako modak sustatzen dira, holako eta halako ezaugarriak hobesten, oinarritzko printzipio baten bueltan: literatura ona eta komertziala antagonistak dira. Asko saldu nahi duten argitaletxeek amore eman ohi dute kalitate irizpidetegi dagokionez –alegia, kritikari eta bitartekari hobesten ditugun balio literarioak, hala nola originaltasuna, pertsonaia eta trama fundamenduzkoak, hizkuntzaren erabilera taxuzkoa...–, eta azaleko zein modako ezaugarrietan jaritzen dute indarra –kontsumoa areagotzen duten elementu iraungi-errazak dituzten ezaugarriekin: pertsonaia manikeo ab-

surdoak, simplekeria estilistikoak, irudi eta kolore histrionikoak...–.

Tarteka, ordea, badira bi joera horiek batu eta erdibideko saiakerak, bietatik pixka bat hartuta argitaratzen diren lanak. Eta esango nuke hementxe kokatzen zaigula *Marimatrakak* bilduma kaleratu berria: gidoiak halako mami pedagogiko bat dauka, komertzial deituko dugun testu-iguru batean txertatua. Niri emaitza balekoa iruditu zait, eta nire inguruko haurrei gustatu zaie. Zeozer bada, ezta?



'Gu gara Marimatrakak'

Idazlea: Ana Jaka. **Ilustratzailea:** Iosu Mitxelena. **Argitaletxea:** Elkar.